

PUNTUEUS FUNDAZIOA

Erregistro zk.: F-325 sec 17
Eraketa-data: 13/01/2012
Inskripzio-data: 06/03/2012
Argitalpen-data: 19/04/2012
Helbidea: Aita Agirre Plaza, z/g; (Aita Agirre kurturgenko areto nagusia, 1 solariua)
Udalerrria: Elgoibar
PK: 20870
Lurraldea: Gipuzkoa
Telefonoa: 943085051
Webgunea: puntu.eus

Jarduera

Jarduera: Informazio-gizartearen garapena

Fundazioaren helburu orokorra Interneten euskara eta euskal kultura sustatzea da. Horretarako Fundazioaren helburu zehatzak honakoak dira: ".eus" edo antzeko Interneteko domeinua eskatzeko beharrezkoak diren dokumentu eta eskakizun guztiak betetzea eta, behin onartuta, ICANN erakundearekin kontratua sinatzea, zeinaren bitartez, irabazi asmorik gabeko Puntueus Fundazioa eskatutako domeinuaren kudeaketa, kontrol eta administrazioaren arduraduna bilakatuko den. Interneteko domeinu horren ardura izateak suposatzen du: domeinuen erregistrorako esakriak jasotzea, domeinua erabiltzeko ezinbestekoak diren baldintzak betetzen direla ziurtatzea, betetzen baditu, erregistrorako baimena ematea; eta azkenik, erregistroa teknikoki mantzentzen dela ziurtatzea".



Erregistroan egun jasota dauden datuak 2025/12/29

Erregistroko datuen argitalpen hau informazioa emateko baino ez da